

Irakasleen mahai negoziatzaileira deitu dute, proposamenik gabe

Irakasleen mobilizazio gaitasunak eta indarrak Hezkuntza Saila mahai negoziatzaileira deitzera behartu du.

Greba zikloaren hirugarren txandan negoziazioa etenda izan ondoren, 9 egun pasa direnean Hezkuntza Sailak irakasleen mahai negoziatzailea deitu du biharko. Egun hauetako greba eta mobilizazioetako indar erakustaldiak Hezkuntza Saila mugiarazi duela argi dagoela uste du LABek. Hezkuntza komunitate osoa mobilizatu da irakasleek aldarrikatutakoei babesa erakusteko: familiak, ikasleak, hezkuntza publikoan greban ez dauden kolektiboak... Horregatik, LABek eskerrak eman nahi dizkie.

Nahiz eta akordio arautzailea negoziatzeko idatzizko proposamenena bidaltzeko eskatu izan dion LABek, sailak momentuz ez du inongo proposamenik bidali. Biharko mahaira zer ekarriko duten ikusteke badago ere, LABek ondo baloratzen du mahaira deitu izana. Hortaz, biharko mahaira indartsu eta indar posizio argiarekin doa LAB. Bere helburuak eta egingo ditugun eskariak berretsiko ditu bertan.

LABentzat herri bezala ditugun erronkei erantzuteko berebiziko garrantzia duten eta sindikatuarentzat estrategikoak diren hezkidetzak edota euskara koordinatzaileak ezinbestekoak dira, eta baita aniztasunari erantzuteko baliabideak indartzea edota zuzendaritza taldeek duten lan zamari erantzuteko ordu kreditu gehigarriak zehaztasunez txertatzea ere. Aipatutako figura eta baliabide horiek, hezkuntza kalitatean eta zerbitzuan eragiteaz gain, eskola publikoa indartuko lukete, eta egun irakasleek dituzten lan zametan eragingo luke horrek. Estrategikoak izateaz gain, ezinbestekoak dira. Gainera, akordio arautzaile edo lan hitzarmenean zehaztasun eta epeak jasotzeko ekarpenak egiten jarraituko du eta lan zamen jaitsieran zein soldata igoeran lanean jarraituko du.